

1.gaia KONTZEPTUAK, ZIENTZIA, POLITIKA

0. SARRERA

Kontzeptuak

Pentsamendu objektu konkretu edo abstraktu bati buruz, giza adimenak sortzen duen ideia orokor eta abstraktua.

Adibideak:

- *Zaldia*, objektu konkretu bat
 - o “*Zaldi*” kontzeptua, kontzeptu abstraktua da
- *Amodioa*, objektu abstraktua
 - o “*Amodio*” kontzeptua, kontzeptu abstraktua da
- Politika zientziaren aztergai gisa, *boterea*

Azken finean →


Objektu bat (demokrazia, boterea) eta gure (hots, subjektuaren) arteko ezagutza harremana planteatzen da kontzeptuaren bidez. Hau da zientziaren muina.

Horretan oinarritzen da zientzia: subjektuak nola ezagutu objektua.

Adibideak:

- Metodo enpirikoa (sinplea eta, beharbada, okerra):
 - o Subjektua esperimentazio bidez hel daiteke objektuaren ezaugarri guztiak ezagutzera
 - o Horrek, subjektua eta objektuaren arteko harremana ukatzen du
- Atomo bat
 - o Subjektu eta objektuaren arteko erlazioa baliatzen den tresnaren araberakoa da: ezin begi hutsez ikusi, bai ordea mikroskopioz

Horrela, azpimarragarria da subjektuaren eta objektuaren arteko erlazioa definitzea zaila dela, bien arteko bereizketa bera ere ez baitago argi.



Kontzeptuek, **bi irteera** dituzte:

- 1- Denotazioa: kontzeptu objektiboa
 - Enborretan dauden txoriak dira, kakaz josita
- 2- Konnotazioa: kontzeptuari norberak itsatsitako baloreak
 - Sistema klasistaren irudi bat da

Denotazio vs. Konnotazio hori, gizarte zientzietako arazoa da.

- "Erlatibismoaren arazoa". Hori saihestearren, zientzia beharrezkoa da.
- Zientzia, kasu honetan, metodoaren erabilera gisa ulertuta: pausoak, tresnak. Horrek bermatzen du nolabaiteko objetibotasuna.

Politika kontzeptua

Politikari ematen diogun definizioaren arabera, politika zientziaren objektu edo aztergaia ere aldatu egiten da.

- Ez da berbera Aristotelesen garaian politikaren azterketaren ikergaia, gaur egungoarekin alderatuz gero. Izan ere, *politikaren* definizioa asko aldatu da orduetik gaurdaino.

Ordea, *politikaren* definizioa aldatu bada ere, *politika* bera ez da aldatu; objektu gisa politika ez baita ezer izatez.

- Hots, objektua subjektuak sortzen baitu.

Horrexegatik da lehen aipatutako metodo zientifikoaren erabilera hain garrantzitsua, erlatibismo edo subjektibismoan ez erortzeko. Zientzia kontrol bitartekotzat joko genuke kasu honetan.

1. POLITIKA ZIENTZIAREN SORRERA ETA GARAPENA

1.1. POLITIKA ZIENTZIAREN ZENBAIT DEFINIZIO

Politika zientzia:

Politika Zientzien definizio ugari daude: izan ere, gizarte fenomeno da eta bakoitzak esanahi ezberdina esleitu diezaioke.

Gobernu erakundeen jarduera eta antolamenduak, elkarketa politikorako bitartekoak eta prozesu politikoetan hartzen diren erabakiak legitimatzen laguntzen duten harreman sozialak deskribatzen eta aztertzen dituen arlo zientifikoa da.

- Erakundeen jarduera eta antolamendua: Eremu instituzionala hartzen du aztergaitzat.
- Elkarketa politikoak: Helburu politikoak sortzeko erabilitako bitartekoak aztertzen dira (alderdi politikoak, gizarte mugimenduak, interes taldeak eta abar)
- Prozesu politikoetan hartzen diren erabakiak: Erabaki publikoei dagokie, komunitateak behartzen dituenak.

Politika zientziaren garapena:

Politika zientziaren historia beste politika arlo batzuekin nahasten da. Horrela, nahastuz doa politika zientziaren ikerketa gaia.

Bere hastapenetan aipagarriak diren hainbat izen esanguratsu daude, lau iturburu nagusitan bereizita:

1.2. POLITIKA ZIENTZIAREN ITURBURUAK

a) Denborazkoak

- **Aitzindariak**
 - **Machiavelli: sekularizazioa**

Italiako politikaria, filosofoa, musikaria, olerkaria eta idazlea, Pizkundeko pentsalari handienetakoa. Bereziki, teoria politikoengatik da ezaguna: boterea kudeatzen errealismoa eta pragmatismo hotza nabarmendu zituen, gizakiaren ikuspegi ezkor

batetan oinarrituta. *Printzea* izeneko tratatuan bere ikuspegia ondu zuen; gaur egun oraindik ere aipatu eta eztabaidatua dena.

Florentziako printzearen aholkularia izan zen eta sekularizazioaz mintzatu zen; hots, legitimazio erlijiosoa apurtu zuen.

Sekularizazioa: gizarte politiko batean erlijioa maila pribatuetara mugatzean datza.

“Politika erlijioarekiko autonomia da, giza zientzia tekniko bat. Horrela, esparru erlijiosotik at aztertu behar da”

- **Hume: enpirismoa**

Eskoziar filosofo, ekonomista eta historialaria izan zen. Enpirismoaren bultzatzailea John Locke, George Berkeley eta bestetuekin batera. Zehazki, enpirista positibista izan zen Hume.

Humeren esanetan politika zientzia (eta gizarte zientzia oro) natur zientzien eredura hurbildu beharra dago; hots, Zientzia Politikoak aztertzeko, Natur Zientzietako metodoak balia daitezkeela esan zuen.

Enpirismoa: esperientzia eta behaketan oinarritzen da.

Enpirismoari esker, 1945tik aurrera (2MGren ostean) Politika Zientzia garatzen hasi zen.

- **Montesquieu: Osotasuna eta konparazioa**

Ilustrazio garaiko kronista eta pentsalari politikoa; ilustrazio mugimenduko filosofo eta saiakeragile garrantzitsuenetakoa. Bere ospea, bereziki, gaur egungo gobernu modernoek oinarritzat duten botere banaketaren teoriaren ondorioa da.

Munduan zehar burutu ziren itsas bidaia ugarien ondorioz, giza antolakunde ezberdinak ezagutu ziren. Horrela, Politika gainontzeko aspektuekin erlazionatuta dagoela ondorioztatu zuen Montesquieuk, eta osotasunarekiko konparazio metodoa garatu zuen.

Osotasunarekiko konparazioa:

- **Instituzionalizazioa: XIX eta XX.mendeak**

Politika Zientzia oso zientzia berria dugula esan genezake; hots, XIX-XX mende bitartean hasi zen katedra moduan lantzen.

Instituzionalizazio horrek Politika Zientziaren garapena sustatu zuen; ordura arte, inolako bitartekorik gabe, ez baitzegoen garatzeko biderik. Era berean, bitarteko edo baliabide horiek botere errekurtsio gisa definitu ditzakegu. Horrenbestez, Politika Zientzia bera ere boterea dela ondorioztatuz.

Horren ondorioz, eta interes ezberdinak sortu zirela aintzat hartuaz, gatazka eta borroka askoren sorburu izan da hau.

b) Arlo artekoak:

Politika Zientziak arlo ezberdin askotatik jasotzen ditu eraginak; hots, bere hastapenetan adar ezberdinetatik jaso zituen bere edukiak. Hala nola:

- Politika filosofia
- Politika teoria
- Konstituzio zuzenbidea
- Estatuaren teoria
- Soziologia

c) Analitikoak

Politika aztertzerakoan, bi ikerketa-gai eta –ildo edo –tradizio bereiz ditzakegu:

a. Tradizio anglosaxoniarra, boterearen azterketa: AEB, BH

b. Tradizio europar kontinental, estatuaren azterketa: Alemania, Frantzia

Ezberdintze horren arrazoia honakoa da: Politika Zientzia fenomeno sozialen arabera zientzia da.

- AEBn, adibidez, ez dute monarkiarik ezagutu. Horrela, nork, zer, nola eta noiz egiten duen hartu izan dute ikerketaren abiapuntutzat; hots, boterea bera ikertu dute.
- Ordea, Alemanian, monarkia ezagutu zuten. Konstituzioa berregituratzerakoan, horrela, ezinbestekoa izan da estatuaren kontzeptua eduki eta garatzea.

d) Metodologikoak

Labur azalduta, hiru metodo bereiz genitzake:

a. Normatibistak:

Normatibismoak araei egiten die erreferentzia; hots, ezinbestekotzat jotzen da (zentzu etiko batean) arau unibertsalak sortzea.

Kant izan zen aitzindari (metodo induktiboa asmatu eta giza-eskubideen oinarriak finkatu zituen). Berak zioen moduan existitzen denaren eta izan beharko lukeenaren arteko konparazioa egiten du normatibismoak. Gizarte hobe bat sortzea izango da xedea eta, horretarako, demokrazia jotzen zuten gobernu forma egokitzat.

b. Enpiristak / positibistak

Ikerketan eta esperientzian oinarritzen dira: sondeoak, inkestak ... Politika Zientzian eta Soziologian asko garatu dira.

c. Kritikoak / dialektikoak

Marxismoan oinarritzen dira; horrela, gatazkaren kontzeptua hartzen dute abiapuntutzat eta dialektikan oinarritzen dira. (Konstruktibismoa ere deitu izan zaio honi). g

2. POLITIKA ZIENTZIA ETA POLITIKA TEORIA

2.1 POLITIKA - TEORIA ETA FILOSOFIA: OSAGAI NORMATIBOA

Historikoki politika-teoria eta politika-filosofia bat etorri dira. Ordea, gaur egun, beharrezkoa da bi arloak bereiztea.

Grezia Klasikoan Politikari dagokion tradizioa handia izan zen (gaur egun ere jorratzen dira orduan lantzen ziren hainbat gai: gobernantza, betebeharrak, ezagutza politikoa, hierarkia, politikaren kontzeptua ...). Ordea, haustura bat gertatu zen.

- Politika-Teoria: azterketa batzuk egin ostean ondorioak atera eta "teoria" izena jartzen zaie teorioi. Gaur egun praktikan oinarritzen da teoria, eta teoria praktikan.
- Politika-Filosofia: gaur egun funtzio etikora murriztuta dago; hemen ez da inolako azterketarik egiten eta ateratako ondorioak frogatu gabeak dira, hipotesi hutsak.

Hausnarketa gai tradizionalak:

- Gobernari eta gobernatuaren arteko harremanaren izaera eta oinarria
- Beharkizunaren izaera; hots, gobernatuak zergatik obeditu behar duten
- Ezagutza politikoaren izaera; hots, politikak zein metodo baliatu behar dituen
- Helburu politiko eta sozialen hierarkia: gizarte batean dauden baloreen araberrakoak izaten dira (adibidez: askatasuna/berdintasuna hautaketan)
- Politikaren definizioa: politika bera definitzea

Gaurko filosofia:

Gaur egun politika-filosofiaren aztergai nagusiak honakoak dira:

- Gobernu formarik onena (zein den)
- Estatuaren eta beharkizunaren oinarria
- Politikaren izaera eta moral zein etikarekin harremana
- Zientzien metodologia

Esan beharra dago gaur egungo politika-filosofiak ez duela harreman zuzenik Politika Zientziekin. Ordea, filosofiarik gabeko politika tristea litzateke.

2.2 POLITIKA ZIENTZIA

Bi motatako zientziatzat jotzen da:

- Zientzia *erabilgarria*: praktikan jar daitekeelako
- Zientzia *eraginkorra*: kanpo zein barruko faktoreen honengan eragina baitute.

a) Arazo multiteorikoa:

- a. Hainbat paradigma**
- b. Maila ezberdineko teoriak**

Politika Zientziaren baitan hainbat paradigma (eredu, modelo) dago. Hori, gaiak ikuspuntu ezberdinetatik lantzearen ondorio da. Batzuetan elkartu egin daitezke, bestetuetan ordea kontrajarriak dira.

Politika Zientziaren baitan teoria bat baina gehiago biltzen da. Teoria horiek maila ertainekoak dira eta fenomeno zehatzez arduratzen dira.

b) Arlo zientifiko erabilgarria eta emankorra

Erabilgarri eta emankorra da; izan ere, gatazkei irtenbidea bilatzea du xedetzat. Horrela, esperientziak jaso eta baliatuz, erabilgarritasun hori sustatzea garrantzitsua da.

Politika zientzia eta politikaren filosofia:

Lehen esan bezala gaur egungo politika-filosofiak ez duela harreman zuzenik Politika Zientziekin. Ordea, filosofiarik gabeko politika tristea litzateke.

- Bi hauen artean, ordea, ez da osoko hausturarik ematen (harremanduta dira)
- Aldaketak kontzeptu eta kategoria berriak eskatzen ditu
- Etika eta balioak ezin dira baztertu

3. POLITIKA ZIENTZIA ETA POLITIKAREN SOZIOLOGIA

3.1 MUGAN DAUDEN BI ESPARRU

Politikaren Zientzia eta Politikaren Soziologia, fenomeno berberetaz mintzo direnez, elkarrengandik hurbil daude. Ordea, beraien ikuspuntuan dago ezberdintasuna:

- Politika Zientzia: baliabide politikoak
- Soziologia: giza faktoreak

3.2 BI HERENTZIA ETA BI TRADIZIO

Ekarpen esanguratsua burutu dutenak:

a) Estratifikazio soziala: Marx

Legitimazioa, ideologiaren indarra, botere harremanak, beharrezkoen banaketa injustua ...

b) Antolaketa politikoa eta instituzionala: Weber

Politikaren esparruaren izaera autonomoaz mintzo da, eta horrela, autonomoki aztertzeko beharraz.

4. POLITIKA ZIENTZIA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Hasiera batean guztiak "Gizartearen Azterketarako" diziplinatzat jotzen ziren (eklektizismoa).

Eklektizismoa: balore, ideia eta joera ezberdinak batean biltzean datza.

Ordea, XIX.mendetik aurrera espezializazioa burutu zen eta arlo ezberdinen bereizketa eman zen hala 1910 eta 1920 urteen artean.

Horrela, gaur egun (2000.urte ingurutik), Politika Zientzien berreraikuntza fase batean gaude. Gauzei kontzeptu eta teoria politikoetatik ematen diegu azalpena. Ordea, ezin ahaztu dezakegu gainontzeko diziplinen ekarpenak ere onartzen direla (bereziki eztabaidarako baliagarriak baitira).

Horrela:

4.1 ENBOR KOMUNA: HASTAPENETAKO OROKORTASUNA ETA EKLEKTIZISMOA

4.2 BEREIZKETA PROZESUA: ESPEZIALIZAZIOA

4.3 BERRERAIKUNTZA: ANIZTASUNA ETA DIZIPLINARTEKOTASUNA